Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra

PRENTSA OHARRA



# Murchante, San Adrián eta Navarro Villoslada ikastetxeak hobetzeko lanak amaitu ditu Hezkuntza departamentuak

*Ia milioi bat euro inbertitu da hiru ikastetxeen handitze eta hobekuntza lanetan.*

Larunbata, 2017.eko azaroak 4

Hezkuntza departamentuak dagoeneko amaitu ditu Murchante eta San Adrián ikastetxe publikoak nahiz Navarro Villoslada institutua handitzeko eta hobetzeko lanak. Hiru esku-hartzeetan 995.282,55 euro inbertitu dira.

Murchanten eta San Adriango ikastetxeetako lanak Hezkuntza departamenduaren 2017ko Lanen Gidari Planean jasota zeuden eta aurreikusitako aurrekontuarekin bete da, bi eraikinetan funtsezko hobekuntzak gauzatuz.

Murchanteko eskola publikoan eraikina handitzeko bigarren faseko lanak burutu dira. 2016an egin ziren lehenengo faseko lanak eta, bigarren esku-hartzean, psikomotrizitate gela berria egin da, 154.770,18 euroko inbertsioarekin.

San Adrianen ere handitze lanak egin dira, hainbat urtetako eskariari erantzunez. Izan ere, leku falta zuen ikastetxeak; sotoan prestatutako bi gelatan aritu dira ikasleak leku faltagatik. Beraz, egindako lanekin ikastetxearen beharrak erantzun dira eta haur hezkuntzako lau gela egin dira. Aurrekontua 396.614,79 eurokoa izan da.

Bestalde, Iruñeko Navarro Villosladako DBHko Institutuko lanak ere amaitu ditu Hezkuntza departamenduak. 443,897,58 euroko inbertsioa egin da eraikinari dagokion jarduerara egokitzeko lanetan.

Guztira, beraz, 3 esku-hartzeekin, 995.282,55 euro inbertitu ditu Hezkuntza departamenduak.